



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

### BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK

1. Karrera Judizialerako eta Fiskalerako, eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntzak .....	2
2. Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuetarako .....	3
3. Zigortuak birsozializatzeko proiektu komunitarioak helburu dituzten dirulaguntza deialdia .....	5
4. Abokatuak elkargotzeko. Doako laguntza juridikoa: ofiziozko txanda .....	6
5. Prokuradoreen elkargotzeko. Doako laguntza juridikoa: ofiziozko txanda .....	8
6. Abokatuak elkargotzeko. Doako laguntza juridikoa: funtzionamendu-gastuak .....	9
7. Prokuradoreen elkargotzeko. Doako laguntza juridikoa: funtzionamendu-gastuak .....	11
8. Abokatuak elkargotzeko. Doako laguntza juridikoa: espetxeetan daudenentzako laguntza juridikoko txanda .....	12
9. Pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak .....	14
10. Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeentzako dirulaguntzak, norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko .....	16
11. Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko edo adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa .....	18
12. Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa .....	21
13. 14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatuzeko laguntzen programa .....	24
14. Udal mailako Harrera-sarea sendotzea. Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa). Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa) .....	26
15. Elkarrekin Bonuak .....	28
16. Elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak .....	31
17. Terrorismoko biktimentzako laguntza .....	33
18. Udalei bizikidetzeta eta giza eskubideen programetarako dirulaguntzak .....	34
19. Giza Eskubideen «René Cassin» Saria .....	35



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Karrera Judizialerako eta Fiskalerako, eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

Agindua, 2022ko uztailaren 20koa, Berdintsun, Justizia eta Politiketako sailburuarena, Karrera Judizialera, Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora iristeko prestaketa-laguntzetarako 2023ko deialdia egiteko eta laguntza horiek arautzeko dena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204352e.pdf>.

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/04/2301644e.pdf>.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza lerroa, zuzenbideko lizentziadunak motibatzea helburu duena beren lanbide asmoak Karrera Judizial eta Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora bidera ditzaten.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdia ebatzi ondoren, aurreikusitako 40 beketatik 40 eman dira (35 emakume eta 5 gizon).

Baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina handiak izan dira, bai eskatzaileen kopuruagatik, bai kidego judizial horietan sarbidea izan duten onuradunen kopuruagatik, azkenean Euskal Autonomia Erkidegokoa justizia aparatuan integratuko baitira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatzaile kopurua	52	40



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuetarako**

2.- Araua

-411/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Bake Justiziari buruzkoa.

-2022ko uztailaren 20ko Agindua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei bake-epaitegien 2022ko funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak emateko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204351e.pdf>.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Botere Judizialaren Lege Organikoak udalerraren eremuan txertatutako organo gisa eratzen ditu Bake Epaitegiak, eta horregatik ez zaio uko egin udalen lankidetzari organo horien baliabide materialak hornitzeari dagokionean.

Horiek horrela, abenduaren 28ko 38/1988 Legean, Mugape eta Planta Judizialari buruzkoan, 50. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenei jarraituz, diru-laguntza programa bat ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan udalek gai honetan dituzten premiei sostengu ekonomikoa emateko.

Horregatik, 1990 urteaz geroztik Dekretu eta Agindu multzo bat eman da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako laguntzak arautu eta haietarako deialdiak egiteko, Bake Epaitegietak funtzionamendu-gastuei aurre egiteko asmoz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdi hori eginda, helburu horretarako aurrekontuan sartutako zenbatekoaren (500.000 €) % 92,63 gauzatu da (463.175 €)

Lortutako emaitzak deialdian aurreikusitako berak dira; baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina garrantzitsuak izan dira, Bake Epaitegia duten 236 udalei eman baitzaizkie funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Diru-lagundutako Udal kopurua	236	235
Aurrekontu-exekuzioaren zenbatekoa eta ehunekoa	% 100	% 99,58



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Zigortuak birsozializatzeko proiektu komunitarioak helburu dituzten dirulaguntza deialdia**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko abuztuaren 31koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira zigortuak birsozializatzeko proiektu komunitarioak helburu dituzten dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emateko oinarri arautzaileak eta deialdia

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia egiten duen Aginduaren argitalpena (EHAA zkia 180, 2022/09/20koa)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204062e.shtml>

Emate-ebazpenaren argitalpena (EHAA zkia 17, 2023/01/25koa)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/01/2300411e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen ditu, norgehiagoka-araubidean, honako proiektu komunitario hauetarako: EAEko espetxeetan zigortutako pertsonak birsozializatzeko proiektuak; askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena eten zaien zigortuak birsozializatzekoak; eta askatasunaz gabetzeko zigorraren ordezkotako neurriak eta gizarte-arretako programa jakin batzuk betearazten eta horien jarraipena egiten laguntzeko proiektuak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Hirugarren sektoreko 35 erakundek baino gehiagok 103 proiektu aurkeztu dituzte guztira dirulaguntzen lerro ezberdinetara. Horietatik 54 proiekturi eman zitzaizkien dirulaguntza. Jarraian doakizue egindako eskabideen laburpen-xehetasuna eta emandako zenbatekoak:

Eskatutakoa 2022	Eskatutakoa 2023	Eskatutakoa (totala)	Emandakoa 2022	Emandakoa 2023
2.415.101,31	5.296.807,35	7.711.908,66	1.598.850,27	2.450.084,47

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
-------------------	----------------------	----------------



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Abokatuen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: ofiziozko txanda**

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).  
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Ez du deialdirik, prozedura orokorreko diru-laguntzen artean ez dagoelako; diru-laguntza horiek lehiaketa bidez ematen dira. Haren araua Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean oinarritzen da. Lege horren 37. artikulua administrazio publiko eskudunei ezartzen die, beren aurrekontu-zuzkiduren kontura, Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoek doako laguntza juridikoko zerbitzuak ezarri, artatu eta jardunean jartzea. Zehazte hori Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren 46. artikuluan dago jasota.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua benetako babes judizialerako sarbidea bermatzea da – Konstituzioaren 119. artikuluan aipatzen dena – Auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenei, bai eta beste pertsona eta erakunde onuradun batzuei ere, zeinei 1/1996 Legeak zuzenean aitortzen baitie doako defentsa eta ordezkartzarako eskubidea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lortutako emaitza herritarrek estatu demokratiko batean kalitatezko doako justizia izateko duten eskubidea bermatzea da, Konstituzioaren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ondorioz, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzen zaien pertsonak auziaren kostutik salbuetsita geratzen dira, eta eskubidea dute behar besteko kualifikazioa duen abokatu baten doako aholkularitza eta defentsa jasotzeko eta prokuradore batek ordezkatzeko, eta Administrazioak finantzatzen du zerbitzu publiko hori. Doako Laguntza Juridikoaren (DLJ) eskubidea aitortzeko jarduera Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuetan (OJZ) hasten da, eta, ondoren, DLJko batzordeei helarazten dizkiete espedienteak. Batzorde horien bilerak, salbuespenak salbuespen, bi astean behin egiten dira.

Doako Laguntza Juridikoaren Legearen aplikazioa erraztu da, eta arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzen den ikusteko jarraipena egin da, EAEko Abokatuen Elkargoei ordaindu baitzaizkie beren



abokatuek ofiziozko txandan egindako jarduera guztiak, bai eta guardiako txandan emandako laguntzak ere.

Programaren Memoriak Araban 5.800 DLJko eskaera-espeditente aurreikusten zituen, 9.000 Gipuzkoan eta 15.000 Bizkaian. Oro har, DLJko 29.800 espeditente zenbatetsi ziren. Eta 2022ko ekitaldi ekonomikoan egindako likidazioen ondoriozko datuek emaitza bateratua ematen dute: 6.474 Araban; 14.735 Bizkaian eta 11.241 Gipuzkoan; guztira 32.450, hau da, zenbatetsitakoa baino 2.650 gehiago.

Programaren Memoriak % 85ean finkatu zuen DLJrako eskubidea aitortzen duten ebazpenen baiespena; eta ondoriozko datuek zifra hori % 88raino igotzen dute, kasu horietan 28.559tan eman baitzen eskubidea aitortzearen aldeko ebazpena (genero eta etxeko indarkeriagatik aldekoak edo positiboak barne); 2.898 kontrakoak ( % 8,9) eta 993 ( % 3,1) artxibatu ziren, izapidetutako 32.240 espeditenteetatik.

Aldekoen artean, nabarmentzekoa da 3.669 espeditente (guztizkoaren % 12,85) genero-indarkeriaren biktimei dagozkiela. 1412 Programaren memorian etxeko indarkeriaren, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen txandako 4.200 jarduera aipatzen ziren.

Generoen arabera, doako justiziaren eskatzaile guztien % 62,05 (20.253) Emakumeei dagokie, % 37,45 (12.223) Gizonei eta gainerakoa, % 0,50 (164) zehaztu gabe.

Programa honen bidez diruz lagundutako politika publiko horren gizarte-eraginaren ebaluazioa konstituzio-agindu bat formalki betetzearen ebaluazioa da, abokatuak doako defentsa eman baitie beren prozedura judizialerako lege ezarritako doako laguntza juridikorako eskubidea eskatu eta lortu duten pertsona guztiei.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Aurreikuspen-adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Doako laguntza juridikoko espeditenteen kopurua	29.800	32.450



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: ofiziozko txanda**

## 2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).  
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Ez du deialdirik, prozedura orokorreko diru-laguntzen artean ez dagoelako; diru-laguntza horiek lehiaketa bidez ematen dira. Haren araua Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean oinarritzen da. Lege horren 37. artikulua administrazio publiko eskudunei ezartzen die, beren aurrekontu-zuzkiduren kargura, Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoek doako laguntza juridikoko zerbitzuak ezarri, artatu eta jardunean jartzea. Zehazte hori Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren 46. artikuluan dago jasota.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenek benetako babes judiziala izango dutela bermatzea; eta beste pertsona eta erakunde onuradun batzuk ere bai, 1/1996 Legeak zuzenean aitortzen baitie doako defentsa eta ordezkartzarako eskubidea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programa honen bidez diruz lagundutako politika publiko horren gizarte-inpaktuaren ebaluazioa da konstituzio-aginduren betetze formala, prokuradore bidezko doako ordezkartza eman baitzaie beren prozedura judizialerako lege ezarritako doako laguntza juridikorako eskubidea eskatu eta lortu duten pertsona guztiei.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aurreikuspen-adierazlea \_\_\_\_\_ Aurreikuspena \_\_\_\_\_ Emaitza \_\_\_\_\_

(Ez dago ezarrita: Ofiziozko txandako espedienteen lotuta dago Prokuradorearen esku-hartzea eskatzen duten abokatutza)





1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Abokatuen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: funtzionamendu-gastuak**

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).  
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Ez du deialdirik, prozedura orokorreko diru-laguntzen artean ez dagoelako; diru-laguntza horiek lehiaketa bidez ematen dira. Haren araua Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean oinarritzen da. Lege horren 37. artikulua administrazio publiko eskudunei ezartzen die, beren aurrekontu-zuzkiduren kargura, Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoek doako laguntza juridikoko zerbitzuak ezarri, artatu eta jardunean jartzea. Hori zehaztea da Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren 47. artikulua xedea.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1/1996 Legeak doako abokatu-laguntzako, defentsako eta ordezkartzako zerbitzuen elkargo-kudeaketa aurreikusten du, eta elkargo profesionaleri zerbitzu horiek arautzeko eta antolatzeko ardura ematen die. Esparru arautzaile horretan, administrazio publiko eskudunek diruz lagunduko dituzte Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu operatiboari eusteko abokatuen elkargoek egiten dituzten gastuak, betiere herritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea ziurtatzeko eta bermatzeko helburuarekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatuz (38. artikulua), eta Abokatuen Elkargoei beren Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu operatiboa – aseguru-kostuak barne – urtean sortutako kostuak egiaztatu ondoren, horiei ordaindu zaizkie urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren 47. artikulua 2. puntua aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak.

Lortutako emaitzak finantzatzeko nahitaezotasuna ezartzen duten arauetan aurreikusitakoak dira, eta, horrekin, bideragarritasuna bermatzen da, erabateko erabilgarritasuna eta gizarte-eragina duen zerbitzu publiko baten funtzionamendu operatiboa ziurtatzeko ezinbesteko premia baitago. Abokatuzaren elkargoei doako laguntza juridikoko zerbitzuen funtzionamenduak sortzen dien kostua ordaintzeko kontraprestazio bat da, bai eta herritarrei prozesuaren aurretik aholkuak eta orientazioa emateaz eta eskatutako uzien behin-behineko kalifikazioaz arduratzen diren unitateena ere.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aurreikuspen-adierazlea

Aurreikuspena

Emaitza

(Ez dago ezarrita)



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Prokuradoreen elkargoa. Doako laguntza juridikoa: funtzionamendu-gastuak**

## 2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).  
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Ez du deialdirik, prozedura orokorreko diru-laguntzen artean ez dagoelako; diru-laguntza horiek lehiaketa bidez ematen dira. Haren araua Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean oinarritzen da. Lege horren 37. artikulua administrazio publiko eskudunei ezartzen die, beren aurrekontu-zuzkiduren kargura, Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoek doako laguntza juridikoko zerbitzuak ezarri, artatu eta jardunean jartzea. Hori zehaztea da Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren 47. artikulua xedea.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1/1996 Legeak doako abokatu-laguntzako, defentsako eta ordezkartzako zerbitzuen elkargo-kudeaketa aurreikusten du, eta elkargo profesionaleri zerbitzu horiek arautzeko eta antolatzeko ardura ematen die. Esparru arautzaile horretan, administrazio publiko eskudunek diruz lagunduko dituzte Prokuradoreen Elkargoek beren zerbitzuen funtzionamendu operatiboari eusteko egiten dituzten gastuak, betiere herritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea ziurtatzeko eta bermatzeko helburuarekin.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatzea eta betetzea erraztu da, babes gutxien duten herritarrei benetako babes judiziala berdintasun-baldintzetan eskuratzea eragozten dieten oztopoak kentzeko. Lortutako emaitzak horiek lortzera behartzen duten arauak aurreikusitakoak dira, eta horrek haien erabilgarritasuna eta gizarte-eragina bermatzen du, kontraprestazio bat baita prokuradoreen elkargoentzat, doako laguntza juridikoaren onuradunentzako ofiziozko txandaren funtzionamenduagatik.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aurreikuspen-adierazlea _____	Aurreikuspena _____	Emaitza _____
(Ez dago ezarrita)		



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Abokatuak elkargotzeko. Doako laguntza juridikoa: espetxeetan daudenentzako laguntza juridikoko txanda**

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoari buruzkoa (1996-1-12ko BOE).  
Doako laguntza juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretua (2018-11-6ko EHAA) jarria).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Ez du deialdirik, prozedura orokorreko diru-laguntzen artean ez dagoelako; diru-laguntza horiek lehiaketa bidez ematen dira. Haren araua Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean oinarritzen da. Lege horren 37. artikulua administrazio publiko eskudunei ezartzen die, beren aurrekontu-zuzkiduren kargura, Abokatuak eta Prokuradoreen Elkargotzeko doako laguntza juridikoko zerbitzuak ezarri, artatu eta jardunean jartzea.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa Euskadiko espetxeetan dauden presoek doako lege-laguntza bermatzeko da, eta kolektibo horri (2022an 1.571 preso zeuden: 124 emakume eta 1.447 gizon) kasuan kasuko zigorrak eragin ez dien eskubideak egikaritzea bermatzea du helburu.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programaren Memoriak 3.800 laguni ematen zien laguntza juridikoa EAEko 3 espetxeetan. Azken datuak aurreikuspen horren azpitik geratu dira, 3.294 jarduera guztira. Lurraldeka, 2.122 Araban izan dira, 489 Bizkaian eta 683 Gipuzkoan. 356 Abokatuak txanda honetan izena emanda daude, 125 Araban, 158 Bizkaian eta 73 Gipuzkoan.

Programa honen bidez lortu nahi diren emaitzak lortu dira, hau da, legezko aholkularitza-zerbitzuak ematen laguntzea eskatzen duten presoek (zigortuak edo prebentziozkoak izan). Kontsultak – aholkoak eta idazkiak – askotarikoak dira, batez ere barneratuaren egoerarekin lotutakoak (baldintzapeko askatasuna, lekualdaketari buruzko informazioa, baimenak, graduaren berrikuspena, kondenaren likidazioa, Epaitegiarekiko harremanak, abokatuaren eskaera, kexa-errekurtsoak, graduaren berrikuspena, erreforma, apelazioa, herrialdetik kanporatzea).

Gizartean duten eragina agerikoa da, haiei dagozkien oinarritzko eskubide legitimoak egikaritzea posible egiten baitu, bestela behar bezala aintzat hartu gabe gera litezkeenak. Laguntza horri esker, EAEko espetxeetako askatasun-gabetuen egoera hobetzen da, haien gizarteratzea helburu hartuta.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Aurreikuspen-adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Espetxeetako lege-laguntzako txandako jarduketan kopurua	3.800	3.294



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak**

2.- Araua

Agindua, 2022ko martxoaren 30ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako 2022ko deialdia egiten da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/12/1205640e.pdf> 271/2012 Dekretua

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201703e.pdf> Deialdiaren Agindua

<http://www9.lan.jakina.ejgvdns/ad27bAyudasTercerSectorWar/documentos/downloadDocument/0901a0fe884732e9?nombreDoc=resolucion2022-HSD.pdf> Emate-ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

271/2012 Dekretuak, abenduaren 4koak, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen baititu, helburu nagusi bat du: Eusko Jaurlaritzak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei emango dizkien laguntzen esparru orokorra arautzea, gizarte-zerbitzuetako eta, oro har, esku-hartze sozialeko jarduerak finantzatzeko. Jende guztiaren autonomia pertsonalaren sustapen eta babesera eta integrazio komunitariora bideratutako jarduerak, bereziki honako gai hauetan biltzen badira edo horiei buruzkoak badira: gizarte-zerbitzuak, gizarteratzea; familiaren babesa; haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea; etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna; adinekoak zaintzea eta babestea; mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaindu eta babestea eta, oro har, desgaitasun-egoeran daudenak; eta askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

GIZ (esku-hartze sozialeko jarduerak pertsona, familia, talde eta komunitateekin) deialdiari dagokionez, 319 proiektu aurkeztu ziren, 193 erakunderen aldetik. Guztira, 145 erakunderi zegozkien 245 proiektu finantzatu ziren, eta, orotara, 3.820.131,82 € eman ziren.



(Boluntarioria eta esku-hartze sozialeko elkarten parte-hartzea indartzeko) ELK ildoan, 108 proiektu aurkeztu zituzten 95 erakundek. Guztira, 81 erakunderi zegozkien 92 proiektu finantzatu ziren, eta, orotara, 598.984,52 euro eman ziren.

(Esku-hartze sozialeko jakintzaren kudeaketa-jarduera) JAK ildoan, 75 erakundek 89 proiektu aurkeztu zituzten. Guztira, 64 erakunderi zegozkien 76 proiektu finantzatu ziren, eta, orotara, 373.284,30 euro eman ziren.

Erabilgarritasunari eta gizarte-inpaktuari dagokienez, azpimarratzekoa da jarduera horiek gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile instituzional eta sozial guztiekin sareko lana sustatzen eta indartzen dutela, bereziki pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku-hartzea sustatzen.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
<u>Erakunde kopurua (GIZ 2022)</u>	<u>249</u>	<u>245</u>
<u>Erakunde kopurua (ELK 2022)</u>	<u>90</u>	<u>92</u>
<u>Erakunde kopurua (JAK 2022)</u>	<u>78</u>	<u>76</u>



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeentzako dirulaguntzak, norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko**

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 6koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei dirulaguntzak emateko oinarriak, norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egin ditzaten, eta 2022rako deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2022ko uztailaren 6koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarena, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei laguntza ekonomikoak emateko oinarriak onartzen dituen bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioari buruzko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko, eta 2022rako deialdia izango duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko erakundeentzako laguntzak, aholkularitza-enpresa baten zerbitzuak kontrata ditzaten, bateragarritasunari buruzko diagnostikoa eta ekintza-plana egiten laguntzeko. Helburua: Egoera-diagnostikoak eta ekintza-planak egitea sustatzea, enpresetako bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzearen esparruan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

46 erakundek eskatu zuten laguntza, eta horietako bat bikoiztuta zegoenez, ezabatu egin zen. Beste bat ezetsi egin zen, nahikoa dokumentazio ez aurkezteagatik. Erakunde onuradunen ebazpena argitaratu ondoren, bi erakundek laguntza adierazi zuten proiektua gauzatzeko ezintasunagatik, eta ordaindutako zenbatekoa itzuli zuten (emandako zenbatekoaren % 70).





## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Eskaera kopurua	40	45
Enpresa eskatzaileen kopurua Lurralde Historikoaren arabera	Bizkaia: 20; Gipuzkoa: 12; Araba: 8	Bizkaia: 20; Gipuzkoa: 20; Araba: 5
Diruz lagundutako enpresen kopurua	35	44
Neurriak eragin diezaiekeen langileen kopurua	2.000	2.324
Neurria eragin diezaiekeen emakume enplegatuen kopurua	1.000	1.249



### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko edo adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa**

### 2.- Araua

- 176/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen (2002ko abuztuaren 7ko EHAA, 148. zk.).
- 109/2006 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, lehen seme edo alaba jaio edo adoptatzeagatiko dirulaguntza arautzen duena (2006ko ekainaren 7ko EHAA, 107. zk.).
- 255/2006 DEKRETUA, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen (2006ko abenduaren 27ko EHAA, 245. zk.).
- 30/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- 121/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena (2018ko abuztuaren 6ko EHAA, 150. zk.).

### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Programaren arauak:

- 176/2002 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2002/08/0204401a.pdf>
- 109/2006 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2006/06/0602936a.pdf>
- 255/2006 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2006/12/0606443a.pdf>
- 30/2015 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501448e.pdf>
- 121/2018 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804066e.pdf>

Deialdia: ez da egiten.

Emate-erabakia: laguntzen esleipena edo ukapena ebazpen zehatzaren eta bereiziaren bidez egiten da.

### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreko Dekretuen xedea familientzako dirulaguntzak arautzea da, jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko eta adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko seme-alaba kopurua handitzeak dakartzan zailtasunei erantzuten laguntzeko, eta horrela lagunduko da familiek nahi dituzten adina seme-alaba edukitzea.

Programan honako jardun-ildo hauek azaltzen dira:

- Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko dirulaguntzak.
- Erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko dirulanguntzak.
- Nazioarteko adopzioagatiko dirulanguntzak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko urtean, programari 25.036.200,00 euro esleitu zitzaizkion. Ekitaldian zehar ordaindutako laguntzen zenbateko osoa 22.878.400,00 eurokoa izan zen, eta horrek esan nahi du % 91,38 gauzatu zela.

Gastu osoa 30/2015 Dekretua aplikatuz emandako laguntzei dagokie. Horietatik:

- 29.543 ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzak izan ziren.
- 206, erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntzak.
- Eta 3, nazioarteko adopzio sinpleagatiko laguntzak.

Gainera, 432 kasutan onartu zen % 33ko edo goragoko desgaitasuna edo mendekotasun-egoera aitortzearen ondoriozko dirulaguntzak bikoiztea.

Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzei dagokienez:

- 6.893 laguntza lehen semeagatik edo alabagatik eman ziren.
- 13.097 laguntza, bigarren semeagatik edo alabagatik.
- Eta 9.553 laguntza, hirugarren edo ondorengo semeagatik edo alabagatik.

Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera:

- Gastuaren % 17,84 (4.080.900,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten.
- Gastuaren % 35,67 (8.161.800,00 euro), Gipuzkoako espedienteek.
- Eta gastuaren % 46,49 (10.635.700,00 euro), Bizkaiko espedienteek.

Seme-alaben jaoitzagatik edo adopzioagatik eta mantenuagatik ematen diren laguntzen programak eragin handia eduki du gizartean abian jarri zenetik; horren adierazgarria da aldi jakin batean EAEn izandako jaiotzen eta aurkeztutako hasierako eskaeren arteko konparaketa, hau da, programaren estaldura-tasa. Fitxa hau egiteko datan 2022an izandako jaiotzei buruzko informazio osoa ez dagoenez, 2021eko datuak erabiliko dira. Eustatek emandako informazioaren arabera, urte horretan 14.257 haur jaiotzen ziren, eta 13.334 hasierako eskaera aurkeztu ziren programara, 13.522 seme-alabari zegozkienak; hau da, estaldura-tasa % 94,84koa izan zen.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Lehen seme-alabarengatiko laguntzak.	6.798	6.893
Bigarren seme-alabarengatiko laguntzak.	13.946	13.097
Hirugarren seme-alabarengatiko edo hurrengoengatiko laguntzak.	10.741	9.553
Erditze anitz, adopzio nazional anitz, adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazio anitz eta nazioarteko adopzioengatiko laguntzak.	270	209
% 33 edo gehiagoko desgaitasunengatiko edo mendekotasunengatiko laguntzen bikoizketa.	495	432



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa**

## 2.- Araua

- 177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa
- 2010eko ekainaren 30ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituena.
- 154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa
- 31/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa
- 32/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzekoa
- AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.
- 164/2019 DEKRETUA, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

- 177/2010 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003308a.pdf>.
- 2010eko ekainaren 30eko Agindua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003341a.pdf>
- 154/2012 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902174e.pdf>
- 31/2015 Dekretua : <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501449e.pdf>
- 32/15 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501450e.pdf>
- 2015eko apirilaren 1eko Agindua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/04/1501673e.pdf>
- 164/2019 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1905022a.pdf>



#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreko dekretuen helburua, familientzako diru-laguntzak arautzea da, gurasoek beren seme-alabei behar duten denbora guztia eskaini ahal izan diezaieten, familien beharrezanei begira gizarte-denboraren antolaketa egokiagoa sustatuz eta gizarte-antolaketa erantzukidea bultzatuz.

164/2019 Dekretuak familia eta lana bateragarri egiteko hiru laguntza-ildo aurreikusten ditu, langileei zuzenduta:

1. Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak. Bi jarduera-ildotan banatuta:
  - a. Lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebete baino gutxiago izateagatik eta zaintzeagatik ematen dituzten kontribuzio-prestazioen aldiak parekatzeko (2020 da lerro honek aurrekontu-zuzkidura duen lehen urtea).
  - b. 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran eta 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa-egoeran dauden langileentzako laguntzak.
2. Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak.
3. Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatatzeko laguntzak.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022an programari esleitutako aurrekontu-zuzkidura 34.678.250,00 eurokoa izan zen, eta ekitaldian emandako laguntzen zenbatekoa 21.400.420,00 eurokoa izan zen; hau da, % 61,71 gauzatu zen.

Gastuaren banaketa honako hau izan zen:

- 19.493.691 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzetarako; 12.007 pertsona izan ziren onuradunak. Horiek honela banatu ziren: 4.975.478,40 euro (%25,52) eszedentzietarako eta 14.518.212,47 euro (%74,48) murrizketetarako. Onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera:
  - % 20,80 (4.055.021,87 euro) Arabako espedienteetarako.
  - % 32,05 (6.247.311,29 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
  - % 47,15 (9.191.357,69 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
- 895.024,72 euro mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzetarako, 447 pertsona izan baitziren onuradun. Horiek, 159.191,96 eurotan banatu ziren (%17,79) eszedentzietarako eta 735.832,76 eurotan (%82,21) murrizketetarako. Onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera:
  - % 19,70 (176.326,53) Arabako espedienteetarako.
  - % 34,05 (304.754,72 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.



- % 46,25 (413.943,47 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
- 295.260,60 euro seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzetarako izan ziren, eta 261 pertsona izan ziren onuradunak. Gastu osoa honela banatu zen lurraldeka:
  - % 7,98 (23.567,54 euro) Arabako espedienteetarako.
  - % 34,23 (101.062,80 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
  - % 57,79 (170.630,26 euro) Bizkaiko espedienteetarako.
- 716.443,67 euro lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebete baino gutxiago izateagatik eta zaintzeagatik ematen dituzten kontribuzio-prestazioen aldiak parekatzeko, eta 262 pertsona izan ziren onuradunak. Gastu osoa honela banatu zen lurraldeka:
  - % 27,67 (198.257,86 euro) Arabako espedienteetarako.
  - % 41,01 (293.830,68 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
  - % 31,32 (224.355,13 euro) Bizkaiko espedienteetarako.

Programa horrek, 2022an, murriztu egin ditu onuradunak eta exekutaturako zenbatekoa, iazkoarekin alderatuta, 4 lerroetan, hainbat arrazoiengatik. Kasu guztietan, kontuan hartu behar da 2021. urtea salbuespeneko urtea izan zela egikaritze-mailan, bertan 2020. urteko laguntza atzeratuak ordaindu zirelako (COVIDa dela eta).

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran eta 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa-egoeran dauden langileentzako laguntzak. Onuradunak	15.500	12.007
Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntzak. Onuradunak	650	447
Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak. Onuradunak	350	261
Lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak, gurasoek urtebete baino gutxiago izateagatik eta zaintzeagatik ematen dituzten kontribuzio-prestazioen aldiak parekatzeko. Onuradunak	1.500	262



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzen programa**

## 2.- Araua

- 177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa
- 2010eko ekainaren 30ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituena.
- 154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa
- 31/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa
- 32/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzekoa
- AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.
- 164/2019 DEKRETUA, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa
- 102/2022 DEKRETUA, irailaren 7koa, 14 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

- 177/2010 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003308a.pdf>.
- 2010eko ekainaren 30eko Agindua:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/07/1003341a.pdf>
- 154/2012 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902174e.pdf>
- 31/2015 Dekretua : <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501449e.pdf>
- 32/15 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/03/1501450e.pdf>
- 2015eko apirilaren 1eko Agindua:  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/04/1501673e.pdf>
- 164/2019 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1905022a.pdf>
- 102/2022 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204041e.pdf>





#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 0 eta 14 urte bitarteko seme-alaben zaintzaileen kontratazioa etengabe diruz laguntzea erabaki du, eta zaintzaileak kontratatzeagatik familiei ematen zaizkien laguntzei buruzko araudi osoa legezko gorputz koherente bakar batean bateratzea. Horrek esan nahi du familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko 164/2019 Dekretuaren V. kapitulua indargabetzen dela.

Laguntzen zenbatekoa: aurreko araudiari dagokionez, dekretuak tarte bat gehiago sartzen du – 50.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua duen eskatzaile bati Gizarte Segurantzari zaintzaile enplegatuaren kotizazio gisa ordaindutako zenbatekoen % 25 emango zaio diruz.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurrekontu-zuzkidura 4.000.000,00 eurokoa izan zen, eta ekitaldian emandako laguntzen zenbatekoa 336.597.61,00 eurokoa izan zen, hau da, % 8,41 gauzatu zen. 308 pertsona izan ziren onuradunak.

Gastuaren banaketa, onuraduna bizi den lurralde historikoaren arabera:

- % 25,96 (87.393,29 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
- % 74,04 (249.204,32 euro) Bizkaiko espedienteetarako.

Egikaritze-ehunekoa oso txikia izan da; izan ere, alde batetik, dekretua aurreko data batean indarrean jartzea aurreikusi zen, eta, bestetik, haren ezagutza-maila oraindik txikia dela uste da. Beraz, eskatzaileen kopurua txikiagoa izan da laguntza eska dezaketen familiena baino.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradun kopurua	3.200	308



#### 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

Udal mailako Harrera-sarea sendotzea. Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa). Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa).

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 1ekoa, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez onartzen baitira laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietatei 2022.urterako.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/immigrazio-teknikariak-kontratatzeko-jarraitzeko-laguntzak-2022/web01-tramite/eu/>

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/immigrazioaren-eta-kultura-arteko-bizikidetzaren-alorrean-jarduerak-garatzeko-dirulaguntzak-2022/web01-tramite/eu/>

#### 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen xedea da toki-erakundeek beren ekimenez egindako esku-hartze soziala sustatzea, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean horrelako tokierakundeak laguntzeko.

Programak bi dirulaguntza lerro ditu, ondorengo helburu desberdinekin:

- TEC lerroaren bidez immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren mantentzea finantzatuko da, 2021an indarrean zeuden kontratazioen kasuan, eta kontratazio horiek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako dirulaguntzak jaso badituzte, gai horretan giza-baliabide espezializatuak edukitzeko xedez. Lerro horretara bideratutako partida 381.920 eurokoa da.
- LOC lerroaren bidez immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko lanak ere finantzatuko dira. Lerro horretara bideratutako partida 498.080 eurokoa da.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Harrera eta integrazioaren aldeko lanerako jaurlaritzaren eta udalen arteko koordinazio tresna sendotzea (TEC lerroa): 2022an, 16 immigrazio teknikarien kontratazioa finantzatu da 12 erakunde publikoetan, 381.920,00 euroko zenbatekoaren bidez.

Kultura-artekotasunaren esparruan udalen lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa emateko bitartekoak ezartzea (LOC lerroa): 2022an, jasotako 35 eskarrietatik, 33ri eman zaie dirulaguntza. 497.845,24 euroko zenbatekoaren bidez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erakunde-kopurua (TEC 2022)	12	12
Erakunde-kopurua (LOC 2022)	30	33



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Elkarrekin Bonuak**

## 2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

## Deialdiak:

- EBAZPENA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez tokiko bizikidetzaren esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2022rako deialdia egiten baita: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201689e.pdf>
- EBAZPENA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez hezkuntzaren esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2022ko deialdia egiten baita: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201690e.pdf>
- EBAZPENA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez herritarren parte-hartzearen esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2022rako deialdia egiten baita: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201691e.pdf>

## Emate-ebazpenak:

- Herritarren parte-hartzearen arloa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/01/2300486e.pdf>
- Hezkuntza arloa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/01/2300487e.pdf>
- Tokiko bizikidetzaren arloa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/01/2300488e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat sustatzera bideratutako proiektuak diruz laguntzen dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta hiru eremurekin lotutako erakundeen artean batera sustatzen direnak: hezkuntza, udal-errealitatea (tokiko bizikidetzeta) edo herritarren parte-hartzea.

Bakearen eta bizikidetzaren gaiekin zerikusia duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei ekarpen ekonomiko bat eskaintzen zaie, «bono» izenekoa, ordu justifikatu bakoitzeko, hezkuntzaren, tokiko bizikidetzaren edo herritarren parte-hartzearen arloetan prestakuntza- edo dinamizazio-zerbitzuetan, eskolei, udalei eta beste erakunde batzuei eskainiak, gai espezifiko batzuetan, hala nola bakearen kulturaren, giza eskubideetan, biktimizekiko elkartzasunean, adiskidetzean edo gatazkak konpontzean.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Hauek izan dira 2022ko ikasturtean programaren hiru jarduera-eremuetan lortutako emaitzak:

Hezkuntza-eremua (350.000 €aurrekontuan)

- Erakunde onuradunak: 21 erakunde, Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 180 proposamen jaso ditugu, eta horietatik 139 diruz lagundu dira (1 baldintzak ez betetzeagatik, 6 atzera egiteagatik, 34 aurrekontu-kreditua agortzeagatik).
- Erakunde hartzaileen kopurua: 128 ikastetxe
- Parte hartu duten ikasleen kopurua: 11.808
- Parte hartu duten ikasleen kopurua: 11.804
- Parte hartu duten irakasleen kopurua: 197, Parte hartu duten irakasleen kopurua: 97
- Parte hartu duten amen kopurua: 32, Parte hartu duten gurasoen kopurua: 7
- Parte hartu duten ez-irakasle-emakume kopurua: 32, Parte hartu duten ez-irakasle-gizon kopurua: 34
- Emandako dirulaguntza guztira: 350.000 €, Emandako bonuen kopurua: 5.000 €
- Ordaindutako/justifikatutako dirulaguntza: 348.180 €

Herritarren partaidetzaren eremua (100.000 €aurrekontuan)

- Erakunde onuradunak: 15 erakunde, Diruz lagundutako proiektu-kopurua: 53 proposamen jaso ditugu: 34 osorik diruz lagunduak, 6 diruz lagunduak (parte-hartzaileen mugarekin), 1 diruz lagunduak (kreditu-mugarekin), 1 atzera eginak, 11 ukatuak (aurrekontu-krediturik ez izateagatik).
- Erakunde hartzaileen kopurua: 37 erakunde
- Parte hartu duten emakumeen kopurua: 2.010, Parte hartu duten gizonen kopurua: 1.707
- Guztira emandako dirulaguntza: 100.000 €. Emandako bonu kopurua: 1.429
- Ordaindutako/justifikatutako dirulaguntza: 95.420 €

Udal-eremua (tokiko bizikidetzak) (150.000 €aurrekontuan)

- Erakunde onuradunak: 18 erakunde, Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 37 proposamen jaso ditugu, eta horietatik 30 diruz lagundu dira, 5 ez dira diruz lagundu baldintzak ez betetzeagatik, atzera egite 1, eta 1 ukatu da udalarentzat kreditu faltagatik.
- Udal hartzaileen kopurua: 14 udal
- Parte hartu duten emakumeen kopurua: 6.192, Parte hartu duten gizonen kopurua: 6.201
- Guztira emandako dirulaguntza: 144.520 €, Emandako bonuen kopurua: 2.065
- Ordaindutako/justifikatutako dirulaguntza: 133.410 €



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hezkuntzaarloan: <ul style="list-style-type: none"><li>• Lagundutako ekimenen kopurua.</li><li>• Parte hartzen duten erakundeen kopurua.</li><li>• Parte hartu duten ikastetxeen kopurua.</li></ul>	160 20 70	180 20 70
Herritarrek parte hartzeko arloa: <ul style="list-style-type: none"><li>• Lagundutako ekimenen kopurua.</li><li>• Parte hartzen duten gizarte-erakundeen kopurua.</li></ul>	25 10	41 18
Tokiko bizikidetzaren arloa: <ul style="list-style-type: none"><li>• Lagundutako ekimenen kopurua.</li><li>• Parte hartzen duten erakundeen kopurua.</li></ul>	25 10	25 10



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak**

2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzen dituena.

Deialdia: EBAZPENA, 2022ko apirilaren 6koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasunaren zuzendariarena, zeinaren bidez elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egiten baita: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201777e.pdf>

Emate-ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204253e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek eta toki-erakundeek garatutako proiektu edo ekimenak diruz laguntzea, gure gizartean bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura sustatzeko, giza duintasunaren oinarrian eta enpatiaren eta elkartasunaren aldeko aukeran oinarrituta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko deialdian 268 jaso ziren guztira, eta haietatik 12k erakunde interesdunek atzera egin zuten; 14k, berriz, ezezkoa jaso zuten: 5, deialdiaren ondorioz 1. artikuluan ezarritako xedetik kanpo zeudelako; 5ek, ez duzuelako onuradun, deialdiaren ondorioz 2. artikuluan agertzen diren pertsonak arabera; eta 4k, ez zutelako lortu bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuak laguntzeko laguntzak arautzen dituen 57/2018 Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa.

Genero-ikuspegitik, programaren hartzaileak 93.258 emakume inguru izan dira, 200.000 pertsona ingurutik.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
• Lagundutako ekimenen kopurua.	270	268
• Parte hartu duten gizarte-erakundeen kopurua.	100	100





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Terrorismoko biktimentzako laguntza**

## 2.- Araua

4/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa.  
290/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

4/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa.  
290/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekintza terroristen zuzeneko biktimei eta haien senide eta hurbilekoei erreparazioa eta babesa eta laguntza integrala ematea, Terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko ekainaren 19ko 4/2008 Legean eta Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuan aurreikusitako baldintzetan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean.

Jardueren xede den kolektibo gehiena terrorismoaren biktimen taldekoa da, hau da, giza eskubideen urraketaren bat jasan dutenen taldekoa, laguntza, errekonozimendua eta erreparazioa eskaintzeko helburu nagusiarekin.

Beharrezkoa da kolektibo horiekin lan egitea, globalizazio desberdinaren (migrazioak, errefuxiatuak, desberdintasuna, nazioarteko terrorismoa) ondorioekin gero eta lotura handiagoa duten giza eskubideei begira.

2022an 64 espediente izapidetu dira eta terrorismoaren 287 biktima artatu dira: 165 emakume eta 122 gizon.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Espediente-kopurua	50	64
Biktima guztientzako laguntza eta arreta pertsonalizatua eta integrala	150	287



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Udalei bizikidetzeta eta giza eskubideen programetarako dirulaguntzak**

## 2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako dirulaguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 14koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako laguntzen deialdia egiten baita.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek garatutako proiektuak finantzatzeko laguntzak ematea, proiektu horiek bizikidetzaren, giza eskubideen errespetuaren, enpatiaren eta elkartasunaren kultura sustatzen badute gure gizartean.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko deialdian 70 proiektu aurkeztu ziren guztira, eta horietatik 11 ukatu edo baztertu egin ziren: 3 interesdunek atzera egin zuten, 1 baztertu egin zen erakunde eskatzailea ez zelako udalerrri edo toki-erakunde bat; 5 ukatu egin ziren, deialdiaren helburutik kanpo zegoelako; eta 2 ukatu egin ziren, ez zelako nahikoa puntu lortu.

Dirulaguntzen programa honetara bideratutako diru-zuzkidura 250.000,00 €-koa da. Puntuak eurotan bihurtu ondoren, emandako dirulaguntzen zenbateko osoa 427.346,71 €-koa da. Beraz, 0,58 €-ko ehuneko murriztailea aplikatu zen programara bideratutako zuzkidura ekonomikora egokitzeke.

Genero-ikuspegiari dagokionez, 162.328 emakume inguru izan ziren programaren onuradun, 300.000 pertsona inguruko xede-biztanleriari dagokionez.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
• Lagundutako ekimenen kopurua.	70	70
• Parte hartu duten udal eta gizarte-erakundeen kopurua.	44	44



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Giza Eskubideen «René Cassin» Saria**

## 2.- Araua

427/2013 DEKRETUA, urriaren 16koa, Giza Eskubideen «René Cassin» Saria arautzeko dena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

427/2013 DEKRETUA, urriaren 16koa, Giza Eskubideen «René Cassin» Saria arautzeko dena.

EBAZPENA 2022ko urriaren 5ekoa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasunaren zuzendariarena, «René Cassin» Sarirako 2022ko deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 23koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez Giza Eskubideen 2022ko «René Cassin» saria ematen baita.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Giza Eskubideen eremuan, irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen, publiko zein pribatuen, beren jardura eta ibilbide pertsonal edo profesionalarekin giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen dutela jendaurrean aitortzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Saria 2003an sortu zen, Giza Eskubideen alde egindako jardura nabarmenengatik pertsonak edo kolektiboak jendaurrean aitortzeko. René Cassin saria jaso duten pertsona eta erakundeen artean daude, besteak beste, Asociación Civil Abuelas Plaza de Mayo, Desmond Tutu, Sexual Minorities Uganda, Federico Mayor Zaragoza, Alec Reid, Koro Erdozia Lasa, Elisa Loncon Antileo, eta azken edizioan, 2022an, Dora María Téllez, Nikaraguako aktibista, irabazle suertatu zenean askatasunik gabe geratu zena. Aurrekontu-partida osorik exekutatu da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
• Saria pertsona edo erakunde irabazle bati ematea.	1	1
• Saria emateko ekitaldia egitea.	1	1